



## IDAZKI PROFESIONALAK: IDAZKI PROFESIONALAK EGITEKO BALIABIDEAK INTERNETEN-1.

1

IRAKASGAIA: Euskararen Arauak eta Erabilerak Arlo Juridikoan

Claudia JIMENEZ GARCIA

**AURKIBIDEA: I. Sarrera- II. Euskararen erabilera epaitegietan- III. Idazkiak Interneten, baina non?: 1. Justizia.net: 1.1. Herritarrentzat. 1.2. Epaitegi kanpoko eragileentzat. 1.3. Epaitegi barneko eragileentzat. 1.4 EpaiaBi E-toolBar. 2. Euskal Zuzenbide Zibilaren webgunea. 3. IVAPeko Idazki-ereduak Sailka.- IV. Azken gogoeta.- Bibliografia.**

### I. SARRERA

Lan honen helburu nagusia izango da aztertzea zein izan den euskarak epaitegietan izan duen bilakaera normalizazio prozesuari esker; eta, orokorrean, aurkeztea Interneten aurki daitezkeen epaitegi arloko euskarazko idazki ereduak.

Nahiz eta lanaren funtsa euskarazko baliabideak aurkitzea den, gaian murgildu aurretik, komenigarria iruditzen zait aipatzea zein den euskararen izaera Euskal Herrian. Horrek eragin zuzena baitauka herritarrek Administrazioarekin euskaraz jarduteko dituzten baliabide eta aukeretan. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofiziala izango da gaztelaniarekin batera; Nafarroan, ordea, euskarak ofizialtasun partziala dauka. Hots, ofiziala izango da aurkitzen garen eremu geografikoaren arabera. Azkenik, Euskal Herriaren Iparraldeko hiru probintzietan (Zuberoa, Nafarroa Behera eta Lapurdin) euskarak ez du inolako ofizialtasunik.

Beraz, *zergatik izango ditugu aztergai epaitegietako jardunean herritarrok eskuragarri dituzten Interneteko idazki profesionalak?* Hain zuzen, eredu estandarren existentziak lana erraztu eta txukuntzeaz gain, segurtasun juridikoa bermatzen duelako; ez bakarrik eragile juridikoena baita edozein hirugarren interesdunena ere. Halaber, dokumentuaren eta informazioaren elkartrukea ere errazten da.

Horregatik guztiagatik, uste dut Internet idazki ereduak eskaintzeko baliabide egokia dela. Batik bat, Interneten, teknologia berriek dituzten abantailak topatzeaz gain, horiek onuragarriak direlako euskararen normalizaziorako; herritarren esku geratzen direlako, besteak beste, epaitegietara jotzeko ezinbestekoak diren agirien euskarazko eredu estandarrak.



## II. EUSKAREN ERABILERA EPAITEGIETAN

Hainbat izan dira euskararen estandarizazio eta normalizazioaren alde egin diren ekimenak, baina hau ez da egun batetik bestera lortu, prozesu luze baten emaitza izan baita. Hori dela eta, jarraian, modu laburrean, euskarak Justizia Administrazioan izan duen bilakaera izango dugu aztergai.

Lehenik, oinarri gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko 1979ko Estatutua aipatu behar dugu non bi hizkuntzen ofizialtasuna bermatzen den (6.artikuluari). Horrek, bere garapena izan du Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legean zeinaren 9.artikuluari ondorengoa xedatzen den: “1. Justizia Administrazioarekiko harremanetan, herritar guztiek beren ankerako hizkuntza ofizialaz baliatu abal izango dute, inolako itzulpenik ezin eska daitekeela. 2. Euskaraz aurkeztutako idazki eta agiria, eta baita epai-jardunak, balio eta eragin-indar osokoak izango dira. 3. Eusko Jaurlaritzak, dagokien organoekin elkar hartuta, Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko du”.

Hori horrela izanda, legezko testuetan Justizia Administrazioaren euskararen normalizazioari aipamen egiten zaiola ikus dezakegu, azpimarratuz herritarrek edozein hizkuntza ofizialaz baliatuz harremana izan dezaketela Justizia Administrazioarekin. Baita, euskarazko agiri zein idazki oro, balio eta eraginkortasun osokoak izango direla ere.

Hala ere, aipatutakoa praktikan bermatzea ez zen lan erraza izan, funtzionario eta baliabide materialen eskumena gobernu zentralaren menpe baitzegoen. Dena dela, 249/1996 Errege Dekretuaren bitartez, giza baliabideen eskumena Euskal Autonomia Erkidegoak berenganatu zuen; eta, eskumena berenganatu bezain pronto, Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioan euskara normalizatzeko ekimen zein politikak abian jarri zituen. Horren adibide, Hizkuntza Normalizatzeko Plan Orokorra dugu 2008.urtetik 2017.urte bitartean garatu nahi diren estrategia-helburu zein –lerroak jasotzen dituen. Besteak beste, honako hauek jasotzen dira:

1. Euskarari garrantzi gehiago eskaini behar zaio eta horri hedapena eman. Alde batetik, euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa baloratu nahi da eta, bestetik, giza baliabide zein baliabide materialak esleitzeko lan egingo da, Justizia Administrazioan euskara hedatzeko eta erabiltzeko xedearekin.
2. Herritarren eta profesionalen artean euskarazko zerbitzuen erabilera sustatu egingo da, horien eskaintza ugartuz.
3. Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten funtzionarioen artean euskararen erabilera sustatzea izango da helburu.
4. Epaiak, fiskal, eta idazkari judizialek euskararen normalizazioarekiko jarrera positiboa izan dezaten saiatzeko izango da Plan Orokor honek jasotzen duen erronka nagusia.
5. Abokatuak sentsibilizatu eta gaitu behar dira.

### III. Ikasleen ekarpenak



3

Aipatutakoa oinarri gisa hartuta, ezin dugu ahaztu EpaiBi eta “Auzia euskaraz”-ek Justizia Administrazioan euskararen normalizazioaren alde egiten duten lana. Lehenengoa, Justizia Administrazioaren zerbitzu bat da eta bestea, berriz, EpaiBi taldearen ekimen edo proiektu bat. Biak, orobat, xede nagusizat dute herritarrok, Justizian, euskaraz jarduteko dugun eskubidea bermatzea.

Horrenbestez, denboraren poderioz, euskarak dagoeneko bere erabilera-eremua finkatua dauka Justizia Administrazioan. Gehienbat, ondoren zerrendatuko diren baliabideen bitartez.

### III. IDAZKIAK INTERNETEN, BAINA NON?

Lanean zehar aipatu den moduan, Justizia eremuan, Interneten eskuragarri dauden baliabideak izango ditugu aztergai. Hauek bertako eragile juridiko zein herritarrontzat eskaintzen dira, bermatzeko legez aldarrikatuak dauden hizkuntza-eskubide zein euskararen sustapena.

#### 1. [Justizia.net](http://Justizia.net)

Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioari esleitzen dion webgune honetan, hainbat txantiloie lebidun aurkitzen ditugu. Bertan, horiek eskuratzeko aukera ezberdinak jasotzen direnez, banan-banan atal bakoitzak eskaintzen duena izango dugu aztergai; aukera bakoitza Zuzenbide arloan parte hartzen duten eragile ezberdinei zuzenduta baitago.

#### 1.1. *Herritarrentzat*

Webgune honek herritarrentzat aurkezten duen aukera da erregistro zibilean egin daitezkeen izapidetzak online eta euskaraz egitea. Ondoren txertatzen den irudian agertzen den bezala, hori izango da, beraz, atari horretara jotzeko aukerarik azkarrena, hots, behin hasierako orrian egonda, “*zerbitzu eta izapidetak*” estekan klik egingo dugu.

Atal horretan, ondorengo irudian aurkezten den bezala, arlo zibilari dagozkion hainbat izapide egiteko aukera eskaintzen zaigu. Dena den, esan beharra dago, horietako



### III. Ikasleen ekarpenak



4

batzuk ezin direla *online* egin, aurkeztu behar diren dokumentuak edota egintza horiek burutzeko beharrezkoak diren xehetasunak direla eta. Hala eta guztiz ere, horrelako kasuetan, atariak berak izapide hura nola egin behar den eta erregistrora eraman beharreko dokumentazio guztiaren informazioa eskaintzen du. Hortaz, esan beharra dago, izapide bakoitzeko ematen den informazioa ugaria dela eta modu argi eta ulergarrian azaldua dagoela.

The screenshot shows the Justizia.net website interface. The 'Izapideak' menu is highlighted with a red box. The main content area displays 'Zerbitzuak eta izapideak' with a search bar and a list of services. A table titled 'Egingo diren hurrengo enkanteak' lists upcoming auctions with columns for 'Mota', 'Deskribapena', 'Herria', 'Noiz', and 'Balorazioa'.

Mota	Deskribapena	Herria	Noiz	Balorazioa
	VOLKSWAGEN LT 46, TXASISA KABINA	Donostia-San Sebastian	2015/12/15 10:00	5.075 €
	HIRI-FINKA, ZAZPI ZK., ETXEBIZITZA, EZKERRA-EZKERRA, A) LETRAREKIN ...	Durango	2015/12/15 10:00	123.169,68 €
	2.864 FINKA, 86. LIBURUA (IGORRE), 2.121. LIBURUKIA, 131. FOLIOA, IGORREN, ...	Durango	2015/12/15 10:30	1.438.096,36 €

Adibidez, “jaiotza-ziurtagiria” atalean klik eginez gero, bertan edukiko dugu ziurtagiri hura eskatzearen aukera eta bete beharreko datu-ukanbehar guztiak ere.

The screenshot shows the 'Internet bidez izapidetu' form on the Justizia.net website. The form includes fields for personal data and family information, and a section for 'Ziurtagiriaren datuak' (Document data).

**Ziurtagiria zein pertsonarentzat eskatu da**

\*Izena:   
\*Lehenengo abizena:   
\*Bigarren abizena:   
\*Jaioteguna:  (ee/h/uuuu)  
\*Jaiotza-herria:   
Oharrak:

**Familia-liburua**

Liburukia:   
Orialea:

**Ziurtagiriaren datuak**

\*Zer-nolako ziurtagiria nahi duzun adierazi behar duzu:

Kontu-laburpena  
 Hitzez hitzekoa  
 N/A Na ez dago

Horiek izango dira, beraz, herritarron eskura jartzen diren baliabideak Justizia Administrazioaren eremuan.

#### 1.2. Epaitegitik kanpoko eragileentzako baliabideak

Azaltzen ari garen webgune honetan espresuki eskuragarri agertzen dira abokatuentzako baliagarriak izan daitezkeen agiri elebidunak. Horietara iristeko jarraitu beharreko pausuak ondorengoak izango dira:



### III. Ikasleen ekarpenak



Justizia.net-eko atarira edo hasiera-orrira itzultzen bagara, eskubiko aldean

5

“liburutegia” jartzen duen aukera ikusiko dugu:

Behin, “liburutegia” atalean gaudela, eskubiko zutabearen “liburutegia gaika” zerrenda dagoela ikusiko dugu. Bertan aurkezten den lehenengo aukeran klik eginda (“Euskara eta Justizia”), dokumentu-moten zerrenda bat aurkituko dugu webgunearen ezkerreko aldean:

“Inprimaki” aukeran sakatzuz gero, dokumentu ezberdinen eskaintza aurkituko dugu “word” formatuan. Dena den, aipatu ditugun eragileentzat eskura dauden dokumentuak zeintzuk diren ikusteko, “Lotura duten gaiak” aukera horretan “Abokatuentzako agiriak” estekan sakatzen badugu, bertan aurkituko ditugu, Zuzenbide alor ezberdinetara (*Zibila, Administrazioarekiko auziak, Lan-arloa, Instrukzioa, Adingabeak eta Zigor-arloa*) loturik dauden dokumentuak.



### III. Ikasleen ekarpenak



cpnengun

- Justizia Administrazioa
- Herritarrentzako arreta
- Lan Poltsa
- Lekualdatze-lehiaketa
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
- Helbideak eta telefonoak
- Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua
- Legeria
- Bulego Fiskal Berria
- Oposaketak
- Giza Ballabideak
- Justizia Sailburuordetza
- Etxeko Indarkeria

**Euskara eta Justizia**

Lotura duten gaiak: [Normalizazio plana](#) [Abokatuentzako agiriak](#) [Gidek eta eskuliburuak](#)

[Lege testu elektronikoki](#) [Euskara legearia](#)

- 001 Delituairengatik (edo faltarengatik) kaltetutako pertsonaren idatzizko salaketa (doc. 446 KB)
- 004 Delituairengatik kaltetutako edo ofenditutako alderdiaren kereila (doc. 445 KB)
- 014 Inputatuaren, prozesatuaren edo akusatua izendatzeko (doc. 441 KB)
- 040 Atxilotuaren idazkia, habeas corpus eskatzeko (doc. 449 KB)
- 041 Atxilotuaren ezkontide edo senitatekoaren idazkia, habeas corpus eskatzeko (doc. 441 KB)
- 042 Defentsaren idazkia, eruztatu edo prozesatuaren behinbehineko askatasuna fidantzarekin eskatzeko (doc. 442 KB)
- 043 Defentsaren idazkia, eruztatu edo prozesatuaren behinbehineko askatasun fidantza gabeko eskatzeko (doc. 443 KB)
- 052 Akusazio partikulararen idazkia, kaltetutako neurriak aplikatu daitezela eskatzeko (doc. 452 KB)
- 057 Eruztatuaren defentsaren idazkia, dokumentu bideko eginbidea eta beste inputatuaren deklarazio proposatzeko (doc. 448 KB)
- 063 Eruztatuaren defentsaren idazkia, auzirikotako eginbideak artibada daitezela eskatzeko (doc. 459 KB)
- 081 Idazkia, sumariari amaiera emateko auzirikotatik PKLko 627 art. ko instrukzio izapidea betetzeko eta auzirikotako justiziaren hasiera eskatzeko (doc. 445 KB)
- 084 Akusazio partikulararen idazkia, PKLko 7901 art. ko eginbide osagarriak eskatzeko (doc. 444 KB)
- 085 Akusazio partikulararen idazkia, largapena eskatzeko (doc. 444 KB)

**Dokumentu-motak**

- Denak
- Akordioa
- Aldizkaria
- Arakua
- Dekretua
- Errege Dekretua
- Estadistika
- Gida
- Gidaliburuak
- Gramatika-antza
- Inprimakia
- Legea
- Legea
- Oharia
- Protokoloa
- Zerrenda

**Abokatuentzako agiriak**

Lotura duten gaiak: [Zibila](#) [Administrazioarekiko auziak](#) [Lan-arloa](#) [Instrukzio](#) [Adingabeak](#)

[Zigor-arloa](#)

- 001. Delituairengatik (edo faltarengatik) kaltetutako pertsonaren idatzizko salaketa (doc. 446 KB)
- 004. Delituairengatik kaltetutako edo ofenditutako alderdiaren kereila (doc. 445 KB)
- 014. Inputatuaren, prozesatuaren edo akusatua izendatzeko (doc. 441 KB)
- 040. Atxilotuaren idazkia, habeas corpus eskatzeko (doc. 449 KB)
- 041. Atxilotuaren ezkontide edo senitatekoaren idazkia, habeas corpus eskatzeko (doc. 441 KB)
- 042. Defentsaren idazkia, eruztatu edo prozesatuaren behinbehineko askatasuna fidantzarekin eskatzeko

**Dokumentu-motak**

- Denak
- Inprimakia
- Protokoloa
- Zerrenda

Webguneak, horiek jaisteko aukera zuzena ematen du. Adibidez, “001. Delituairengatik (edo faltarengatik) kaltetutako pertsonaren idatzizko salaketa” dokumentuak honako itxura dauka (→)

Ikusi daitekeen moduan, agiriak berak aukera ematen du dokumentua euskara soilean edota modu ele-bietan edukitzeko, dokumentuaren hasieran dauden bi lauki horiek sakatuz.



**DELITUARENGATIK (EDO FALTARENGATIK) KALTETUTAKO PERTSONAREN IDATZIZKO SALAKETA**

«HERRIA»(E)KO INSTRUKZIOKO «ZENBAKIA» ZENBAKIKO EPAITEGIARI

«IZEN-ABIZENAK» jauna/andrea (NAN: «ZENBAKIA») eta «IZEN-ABIZENAK» jauna/andrea (NAN: «ZENBAKIA»), adin nagusikoak, ezkonduak, «HERRIA»(e)n «HELBIDEA» helbidean bizi direnak, epaitegian agertu dira eta errespetuz DIOTE:

Idazki honen bidez SALAKETA aurkezten dutela alderdi ofenditu gisa. Salatuak dira «IZEN-ABIZENAK» jauna/andrea, adin nagusikoa eta bizilekua «HERRIA»(e)n duena (helbidea: «HELBIDEA»), eta «IZEN-ABIZENAK» jauna/andrea, bizilekua «HERRIA»(e)n duena (helbidea: «HELBIDEA»). Salaketa honako egitate hauekin oinarritzen da:

**LEHENENGOA**, «EGITATEAK ZEHAZTU»

Azaldukoagatik,

**AUZITEGIARI ESKATZEN DIOTE**, alderdi ofenditu gisa SALAKETA egiteko idazkia aurkeztu dutenez, onar dadila, eman dakiola hasiera prozedura penalari eta egin dezatela aurrera jarduketak egoki diren izapideen bidez. Legezkoa denez, justizia eskatzen dute, «HERRIA» (e)n, «DATA» (e)n.

### 1.3. Epaitegi barneko eragileentzat

Izenburuak aurkezten digun estekan klik eginez gero, Euskadiko Justizia Administrazioak azken urteotan epaitegiako agiriak normalizatzeko egin duen lana lor dezakegu. Bertan, arlo guztietako agiriak multzoka sailkatuak daude horien eskuratzea erraztuz.

Atal honen bitartez eskuratutako agiriak, beraz, epaitegiko langileei zuzendutakoak dira. Eta, Justizia Administrazioako web orrialdearen atal honek adierazten duenez, lehenik, batzorde tekniko batek (hizkuntza normalizazioan adituak diren magistratuek osatua dagoena) ereduak gaztelaraz idazten ditu gerora egin behar den itzulpena errazagoa izatearren. Behin testuak itzulita, Epaitegiako Agiriak Itzultzeko Batzordeak horiek



### III. Ikasleen ekarpenak



aztertzen eta adosten ditu, esparru horretan erabiltzen den terminologia eta legedia kontuan hartuz.

Atal honetan agertzen diren dokumentuen bilaketa egiteko, kontsulta bi modutan egin daitekeela ohartuko gara: “dokumentuak ikusiz” edota “hitzak galdetuz”. “Dokumentuak ikusiz” aukeratuz gero, aipatutako dokumentu-multzoak edo gaiak izango ditugu eskuragarri:

#### MULTZOAK

- [ADINGABEEN EPAITEGIAK \(1999KO AZAROA\)](#)
- [ADINGABEEN EPAITEGIAK \(2003KO ABENDUA\)](#)
- [ADINGABEEN EPAITEGIAK \(2004KO ABENDUA\)](#)
- [ADINGABEEN EPAITEGIAK \(2005EKO URTARRILA\)](#)
- [ADINGABEEN FISKALTZA \(2003KO URRIA\)](#)
- [ADINGABEEN FISKALTZA \(2007KO UZTAILA\)](#)
- [ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO EPAITEGIAK \(2005EKO MARTXOA\)](#)
- [ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO EPAITEGIAK \(2008KO MAIATZA\)](#)
- [ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO EPAITEGIAK \(2009KO APIRILA\)](#)
- [AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL ERAKUNDEA \(2009KO APIRILA\)](#)
- [ARTXIBO OROKORRA \(2009KO APIRILA\)](#)
- [DELITUEN ZERRENDA \(2008KO ABENDUA\)](#)
- [EAeko Anko ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO SALA \(1999KO AZAROA\)](#)
- [EAeko Anko ZIBILEKO ETA ZIGOR-ARLOKO SALA \(2002KO EKAINA\)](#)
- [EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIAK \(2005EKO AZAROA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2002KO EKAINA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2003KO MARTXOA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2003KO EKAINA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2004KO MARTXOA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2004KO URRIA\)](#)
- [EPAITEGI DEKANOA \(2009KO APIRILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(1999KO OTSAILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2002KO EKAINA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2002KO AZAROA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2004KO MAIATZA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2007KO URTARRILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2008KO URTARRILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2008KO OTSAILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2008KO APIRILA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2008KO MAIATZA\)](#)
- [ERREGISTRO ZIBILA \(2008KO IRAILA\)](#)

Atalean (irudian ikus daitekeen moduan) alfabetikoki zerrendatuak agertzen dira euskaratuak izan diren agiri mota ezberdinak. Dokumentu motaren alboan euskaratua izan den urtea zein izan zen agertzen zaigu, agiriak urteak pasa hala aldatu egiten baitira. Eskaintzen den zerrenda horretako bat hautatzen badugu, adibidez, “*Fiskaltza 2003ko uztaila*”, alor horri dagozkion euskaratutako dokumentuak agertuko dira.

ESCRITO DE ACUSACIÓN GENÉRICO	AKUSAZIO-IDAZKI OROKORRA
FISCALÍA DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO FISKALTZA
CAUSA ...denominación órgano judicial... ...tipo y nº de procedimiento...	AUZIA: ...órgano judicialaren izena... ...procedura-mota eta zk...
Número de Identificación General: ...número de identificación general...	Identifikazio Zenbaki Orokorra: ...identifikazio-zenbaki orokorra...
AL JUZGADO DE INSTRUCCIÓN	INSTRUKZIOKO EPAITEGIARI
El FISCAL en la causa referenciada, evacuando el trámite que le ha sido conferido, solicita LA APERTURA DEL JUICIO ORAL ante ...inserte órgano... formulando ACUSACIÓN contra ...nombre, apellido y DNI... en los siguientes términos:	Goian aipatzen den auziko FISKALA naizen honek, eskatu zaidan izapidea betez, ...zehazu organoa... -n AHOZKO JUDIZIOA HAS DADILA eskatzen dut, eta honako AKUSAZIO hau egiten dut ...izena, abizena eta NAN... jn.aren/and aren aurka:
PRIMERO -...inserte los hechos...	LEHENENGOA - ...idatzi egitateak...
SEGUNDO - Los hechos relatados son constitutivos de un DELITO de ...delitos de un asunto..., previsto y penado en el/los artículo/s ...inserte artículos... del Código Penal.	BIGARRENA - Azaldutako egitateak ...auziko delituak... DELITU dira eta Zigor Kodeko ...zehazu artikulua... art an aurreikusi eta zigortuta daude.
TERCERO - Del anterior delito es/son responsable/s en concepto de ...autor cómplice-etc. y nombres...	HIRUGARRENA - ...izen-abizenak... da aurreko delituaren erantzule, ...egilea/sopikuna/etab... den aldetik.
(SELECCIONA EL PÁRRAFO CORRESPONDIENTE)	(AUKERATU BIDEZKO DEN PARAGRAFOA)
***** CUARTO - No concurren circunstancias modificativas de la responsabilidad criminal.	***** LAUGARRENA - Ez dago akusatuaren erantzukizun kriminala aldatzen duen inguruabarrik.
***** CUARTO - Concurren las circunstancias modificativas de ...inserte circunstancias...	***** LAUGARRENA - Akusatuaren erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabar hauek daude: ...idatzi inguruabarrak...

Ha  
la,  
“Akusazio-  
idazki  
orokorrak”  
ondoreng  
o eredu  
hau  
aurkezten  
digu:





Orain arte ikusitakoaren arabera, esan beharra dago Justizia Administrazioari webgunek eskaintzen duen dokumentu edo agiri kopurua anitza dela. Baina, aitortu beharra dago, horietara heltzeko zailtasunak planteatzen direla, ez baitago atal orokor bat non eragile ezberdinen agiri guztiak sailkatuta aurki daitezkeen. Izan ere, azaldu den moduan, webgunearen liburutegi atalek dokumentu batzuk eskuratu daitezkeelako eta, bestalde, adierazi den esteka horren bitartez beste agiri hauek eskaintzen direlako. Herritarrentzako agiriak, ordea, webguneko beste atal batean eskuragarri ditugu. Horrek guztiak zaildu egiten du dokumentu hauen eskuratzea.

Honi, nolabaiteko konponbidea eman ahal izateko, jarraian, EpaiBi-ToolBar-ak aurkezten dizkigun aukerak aipatuko ditugu.

#### 1.4. EpaiBi E-toolBar

Behin EpaiBi-k eskaintzen duen atrari honetna egonda, “ereduak” aukera sailkatuta, ondorengo atal honekin egingo dugu topo:

epaiBi Itzultzailea Ereduak Galdetu Pilulak Gehiago es | eu Bilatu abokatua

Eredu-izena gatzelaniaz

**Abokatuen ereduak**

**Bilaketa 2 aukera**

1) Ereduak bilatzeko goiko eremuan izenaren zati bat idatzi eta BILATU botoia sakatu.

2) Eredu guztiak ikusteko jo beheko karpeta hauetara:

- Adingabeak
- Lan-arloa
- Zigor arloa
- Administrazioarekiko auziak
- Zibila

Bidali zure iruzkina

Beraz, baliabide honetan ere, Zuzenbide arloetako euskarazko agiriak eskuratzeko aukera ematen zaigu. Bi modutan egin ahal izango dugu bilaketa, alde batetik, goiko eremuan bilatu nahi dugun dokumentuaren izena idatziz edota, bestetik, eredu guztietara jotzeko aurkezten diren karpeta horietan klik eginez.

Adibidez, “Adingabeak” karpetan sartuz gero, Justizia.net webguneko atarira igorriko gaitu non, adierazia izan den bezala, eskuragarri edukiko ditugun arlo horri dagozkion euskarazko dokumentuak. Irudian ikusi dezakegu aurkezten diren dokumentu horietako batzuk:



### III. Ikasleen ekarpenak



- Justizia Administrazioa
- Herritarrentzako arreta
- Lan Poltsa
- Lekualdatze-lehiaketa
- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
- Helbideak eta telefonoak
- Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua
- Legeria
- Bulego Fiskal Berria
- Oposaketak
- Giza Ballabideak
- Justizia Saibunordetza
- Etxeko Indarkeria

**Adingabeak**

Lotura duten gaiak: [II. Titulua\\_Neuriak](#) | [III. Titulua\\_Prozeduraren instrukzioak](#) | [IV. Titulua\\_Entzunaldiko fasea](#) | [V. Titulua\\_Epaia](#) | [VI. Titulua\\_Errekurtsoen erregimena](#)

- 043. Adingabearen letraduaren alegazio-idazkia, adingabeari egotzitako egitateekin ados dagoela baina eskatutako neuriarekin ados ez dagoela adieraztekoa (frogabide-proposamenarekin) (31. Art.) (doc, 433 KB)
- 048. Kaltetuaren apelazio-errekurtsoa, jarduketak largestea erabakitzen duen autoaren aurkakoa (33. Art.) (doc, 436 KB)
- 006. Salaketa-idazkia (16. Art.) (doc, 435 KB)
- 009. Eskumen objektiborik ez izateagatik deklinatoria aurkezteko idazkia (doc, 436 KB)
- 010. Lurralde-eskumenik ez izateagatik deklinatoria aurkezteko idazkia (20-3 art.) (doc, 436 KB)
- 014. Adingabearen letraduaren idazkia, eginbideak ikusteko eta aztertzeko aukera eman diezaiotela eskatzekoa (23-2 art.) (doc, 430 KB)
- 016. Kaltetuaren idazkia, instrukzioko fasean adingabeen fiskaltzan pertsonatzekoa (25. Art.) (doc, 429 KB)
- 020. Kaltetuaren idazkia, froga-eginbidea egin dadila eskatzekoa (25. Art.) (doc, 429 KB)
- 021. Kaltetuaren alegazio-idazkia (25. Art.) (doc, 431 KB)
- 062. Adingabearen letraduaren idazkia, adingabeen epaileak emandako epaiaren aurka apelaziorako errekurtsoa prestatzekoa (41. Art.) (doc, 430 KB)
- 064. Adingabearen letraduaren idazkia, adingabeen epaileak emandako epaiaren aurka apelaziorako errekurtsoa jartzekoa (frogabide-proposamenarekin) (41. Art.) (doc, 434 KB)
- 005. Neuriak aldatzeko autoaren aurkako errekurtsoa (14. Art.) (doc, 431 KB)

**Dokumentu-motak**

- > Denak
- > Inprimakia
- > Zerrenda

*Justizia.net* gunearekin amaitzeko, aipatzekoa da web orrialdeak berak itzulpen juridikoak egiteko atala aurkezten duela. Justizia Administrazioako webguneko hasierako orriaren bukaeran “Euskara Justizian” atalean aurkituko dugu “Itzulpen juridikoen kontsulta”. Esan beharra dago, hitzak itzultzeaz gain, aukera ematen duela hitz-multzoak itzultzeko. Adibidez, gaztelarazko “*interponer demanda*” jartzen badugu, honako emaitza hauek azalduko zaizkigu:

Hasiera
Justizia
Zerbitzuak eta izapideak

Hemen zaud: Zerbitzuak eta izapideak > Euskara justizian > Lege-testu elebidunak Bloga · Albisteak · Liburutegia

**Izapideak**

- Jaiotza-ziurtagiria
- Ezkontza-ziurtagiria
- Heriotza-ziurtagiria
- Bizi-agiariaren ziurtagiria
- Jaiotza-inskripzioa
- Ezkontza-inskripzioa
- Heriotza-inskripzioa
- Ezkontza zibilaren eskaera
- Izena aldatzea
- Abizenak aldatzea
- Nazionalitate eskaera
- Doako justizia
- Salaketa aurkeztu
- Babes-agindua
- Gordailuen kontua
- Kexak eta iradokizunak
- Diru-kopuruak erreklamatzeko

**Zerbitzuak**

- Etxeko indarkeria
- Biktimari arreta
- Zigorren ordezko erak
- Gatazketarako bitartekaritza
- Familien gainzortpetzea

**Erabilgarria**

- Herritarrentzako arreta
- Enkante judizialak

**Itzulpen juridikoen kontsulta**

Testua:   castellano > euskera

Bilatu:

**Guztiak**

Gaztelania	Euskara
<b>interponer demanda</b>	<b>demanda jarri</b>
Interponer demanda	Demanda jarri
Interponer demanda civil	Demanda zibila jarri
Interponer demanda de divorcio	divortzio-demanda jartzeko
interponer demanda de separacion	banantzeko demanda jartzea
plazo para interponer demanda	demanda aurkezteko epea
instar demanda; interponer demanda	demanda jarri
plazo interponer demanda de ordinario	Judizio aruntaren demanda jartzeko epea
Depositario para Interponer demanda de revision	Berrikuspen-demanda jarri ahal izateko gordailuzaina
INTERPONER DEMANDA JUICIO ORDINARIO. [NUMERO]* INSTANCIA DE [POBLACION]	JUDICIO ARRUNTERAKO DEMANDA. JARRI. [HERRIA][EJKO [ZENBAKIA]. AUZIALDIA
Interponer demanda juicio ordinario. 1ª instancia de [POBLACION]	Judizio arunterako demanda jarri. [HERRIA](e)ko 1. auzialdia

## 2. Euskal Zuzenbide Zibilaren webgunea

Zuzenbide arloan eskaintzen diren agiri edo idazki profesionalen baliabideekin jarraituz, Euskal Zuzenbide Zibilaren webgunea dugu aipagarri. Hau, Zuzenbidearen Euskal Akademiak euskal zuzenbide zibilari buruz egin duen datu-basea dugu. Webgune honen helburu nagusia da euskal zuzenbide zibilaren oinarritzko kontzeptuak plazaratzea, Internetek eskaintzen dituen teknologia berriei baliatuz.



### III. Ikasleen ekarpenak



10

Zuzenbidearen Euskal Akademia 2003. urtetik abian dagoen erakundea izanik, alde batetik, euskal zuzenbide zibilaren edukiak lanbide ikuspuntutik jorratzen ditu eta, bestetik, euskal zuzenbide zibila ikusmira akademikotik aztertuta eta ikertuta izan dadin jarduten du.

Hori dela eta, aipatutako *forulege* datu-baseak erabiltzailearen esku jartzen ditu euskal zuzenbide zibilaren arloan indarrean dagoen legeria, arlo zehatz horren inguruko jurisprudentzia, kasuan kasuko bibliografia eta eremu horretan erabilgarri izan daitezkeen formularioak. Ez denez datu-base itxia, edozeinek eskuratu dezake bertan jasotzen den dokumentu, formulario edota informazioa.

Beraz, gure gaiarekin jarraituz, webgune honek eskaintzen dituen formularioak honako hauek dira. Hala, “*Formularioak*” atalean sakatuz gero aukera hauek azaltzen

zaizkigu:

Hortaz, oinordetzaren, ezkontzako itunen, auzotasun zibilaren zein izatezko bikoteen inguruan beharrezkoak ditugun agiriak eskuratu ahal izango ditugu webgune honetan, Internet bidezko zuzeneko behera-kargatzearen bitartez.

### 3. IVAPeko Idazki-ereduak Sailka

IVAP edo, beste era batera esanda, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Justizia Sailari atxikita dagoen erakunde autonomoa da. Bere zeregin ezberdinen artean, orobat, herri-administrazioen zerbitzurako langileen euskalduntzea eta itzulpen, interpretazio zein terminologia jarduerak ere burutzen dago. Orokorrean, esan genezake, administrazio-hizkeraren normalizazioaren aldeko lanak garatzen dituela.

Atal honetan, beraz, Sail ezberdinetako idazki-ereduak aurki ditzakegu. Alegia, ekonomia, enplegu, hezkuntza, kultura, ingurumen, ogasun etab. sailei dagozkion idazki-ereduak izango ditugu eskuragarri.





The screenshot shows the IVAP website interface. At the top left is the IVAP logo with the text 'HERRI ANDURALARBITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA'. To the right is the 'euskadi.eus' logo. Below these are navigation tabs: 'Kontaktua', 'Laguntza', 'Gunearen mapa', 'Erabilerraztasuna', and 'Egoitza elektronikoa'. A search bar is visible with the text 'Bilaketa aurreratu'. A horizontal menu below the search bar contains: 'Zer da IVAP?', 'Enplegu publikoa', 'Prestakuntza', 'Euskara', and 'Liburutegia eta argitalpenak'. Below this menu is a section titled 'EHAArako Idazki-ereduak Sailka' with several category buttons: 'Sail guztiak', 'Ekonomia', 'Enplegu', 'Herri Administrazioa', 'Hezkuntza eta Kultura', 'Ingurumena', 'Lehendakaritza', 'Ogasuna', 'Osasuna', 'Segurtasuna', and 'Zeharkakoak'.

“Herri Administrazioiko” sailean sartuz gero, idazki eredu ezberdinak aurkituko ditugu, batez ere, dekretu edota ebazpenak izango direnak. Adibidez, *Herri Administrazio eta Justizia Saileko* atalean, prozedura arruntean, interesdun izan daitezkeenak epatzeko epaiaren ereduak dugu.

Webguneak, halaber, idazki horiek eskuratzeko bi aukera ematen dizkigu: gazteleraz zein euskarazko eredu osatua behera-kargatu dezakegu edota, bestela, euskarazko zein gaztelerako txantiloia eskuratu.

**Herri Administrazio eta Justizia Saila ebazpena interesdun izan daitezkeenak epatzeko prozedura arrunta pertsonatu**

@@@@EBAZPENA, [...data...](e)koa, Funtzio Publikoko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan bideratutako [...zenbakia...] prozedura arruntean interesdun izan daitezkeenak epatzeko dena, alderdi gisa pertsonatu daitez. @@@@

Ebazpen honen bidez, aditzera ematen da Funtzio Publikoko zuzendariak 2011ko uztailaren 22ko Ebazpena eman duela, non xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari bidal dakiola honako prozedura honi buruzko espediente administratiboa:

[...zenbakia...] prozedura arrunta: Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren [...data...](e)ko Aginduaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Agindu horren bidez, [...helburua...].

Prozedura horrek eragina izan dezake [...kidegoaren izena...]Jen Kidegoko hautaketa-prozesua ebazterakoan.

Horregatik guztiagatik, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorritik, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

1.- Aipatutako espedienteetan interesdun izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea ematea, lehenago esandako prozeduretan alderdi gisa pertsonatzeko aukera izan dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan.

2.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, [...data...](a).

Funtzio Publikoko zuzendaria, [...IZEN-ABIZENAK...].

**IV. AZKEN GOGOETA**

Lan honen bitartez, beraz, Justizia Administrazioiko edota Zuzenbide alorretako idazki-baliabide batzuk izan ditugu azterketaren objektu. Hala ere, esan beharra dago, antzak direla Zuzenbide zein epaitegietako jardunetik kanpoko agiriak eskaintzen dituzten baliabideak.

Idazki profesionalen ereduak dagokionez, aztertutako baliabideetan oinarrituz, horietako asko oso baliagarri eta egokiak direla uste dut. Dena den, aztertutako baliabide batzuk ez dituzte euren idazkiak modu argian eskuragarri uzten, eta horrek, zaildu egiten du idazki horietara heltzeko aukera.

Dena den, Justizia Administrazioaren eremuan euskara normalizatzeko egin den lana goraiatu beharra daukat. Nahiz eta nabari den oraindik lan asko egin beharra dagoela, orain arte lortutakoak aipamen garrantzitsua merezi du. Izan ere, denok dakigu zein egoera gogorra den epaieketa prozesu batean egotea eta zein garrantzitsua den ondo adierazteko aukera edukitzea. Beraz, herritarrei prozesu horietan euskaraz parte hartzeko aukera ematea guztiz eskertzekoa da.





Halaber, kontuan hartu behar dugu Justizia Administrazioako funtzionarioak Estatu mailako kidegotan antolatuta daudela eta ezinezkoa dela horiei hizkuntza eskakizunak galdatzea. Beraz, hainbat eragile juridikoez (epaile, fiskal zein idazkari judizialez) euskararen normalizazio lana zailagoa bihurtzen da. Horietako gutxi baitira euskaraz moldatzeko gai direnak.

Hala ere, orain arte lortutakoa ez da gutxi eta, beraz, ildo horretatik lan eginez gero lortuko dugu Justizia Administrazioan euskararen egoera normalizatzea. Horretarako beharrezkoa izango da eragile juridiko zein herritar guztien borondate zein nahia. Hau da, ikusitakoaren baitan, administrazioak gure esku jartzen ditu baliabide edota ekimen ezberdinak eta orain, gu, herritar edo eragile juridiko gisa, horren alde egin behar dugu apustu.

Beraz, Zuzenbide arloan lan egiten dugunok, abian jartzen diren ekimenetan parte hartzen badugu eta herritarrei gure zerbitzuak euskaraz eskaintzen badizkiegu, euskara Justizia Administrazioan mugimenduan egotea eragingo dugu. Horren bitartez, administrazioan euskararen normalizazioa bultzatu egiten da eta.

#### Bibliografia

[http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1980/01/s80\\_0032.pdf](http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/1980/01/s80_0032.pdf)

[http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/es\\_6092/adjuntos/Euskararen\\_Legea\\_itzlpn\\_berria.pdf](http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/es_6092/adjuntos/Euskararen_Legea_itzlpn_berria.pdf)

[http://www.justizia.net/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=ContentDisposition&blobheadervalue1=filename%3DHizkuntza\\_Normalizazio\\_Plana\\_20082017.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290507835936&ssbinary=true](http://www.justizia.net/servlet/Satellite?blobcol=urldata&blobheader=application%2Fpdf&blobheadername1=ContentDisposition&blobheadervalue1=filename%3DHizkuntza_Normalizazio_Plana_20082017.pdf&blobkey=id&blobtable=MungoBlobs&blobwhere=1290507835936&ssbinary=true)

<http://www.auziaeuskaraz.eus/>

<http://www.justizia.net/epaibi/testua?id=1241023007562>

<http://www.justizia.net/uzei/idazki/moduak.html>

<http://www.justizia.net/hasiera>

[http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/eu/contenidos/formulario/izo\\_herri\\_administrazio/eu\\_22/22.html](http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vedorok/eu/contenidos/formulario/izo_herri_administrazio/eu_22/22.html)

<http://www.forulege.com>

<https://servicios.justizia.net/EpaiBiToolBarWEB/servlet/EpaiBiCEpaiBiServlet?servicio=EpaiBiCInicio&usuario=vipezraj&codorg=&idioma=eu&idiomaBusqueda=es&arloa=A-EREDUAK&erabilmota=A#nada>

### III. Ikasleen ekarpenak

